

Hernanik Kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 28a, asteartea ::: 4.627 zk. ::: www.kronika.net



❖ KALDEREROAK Entsaioak gaur, bihar eta etzi

Kaldereroak larunbatean iritsiko dira Hernaniara eta konpartsan parte hartu nahi dutenek entsaioak izango dituzte gaur, bihar eta etzi, 20:00etan, Elur Txorin. ||

Afarira joateko, izen ematea zabalik

Konpartsa atera aurretik, afaria egingo dute Elur Txorin eta afaltzera joan nahi dutenentzat izena emateko zerrenda elkarrean dago. Afaria 19:30etan izango da. Prezioa, 7 euro. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Inteligentzia emozionalari buruz ariko dira gaur

Hitzaldia antolatu dute gaur Goiz Eguzkin. Nagore Vazquez psikologoa inteligentzia emozionalari buruz ariko da. 17:00etan hasiko da eta ondoren galderak egingo aukera izango da. ||

❖ OBRAK

Txillida pasealekua ixtita, gaur eta bihar

Eguraldiak laguntzen badu, Txillida pasealekua konpontzen hasiko dira gaur. Ibilgailuentzat ixtita egongo da gaur eta bihar, 07:00etatik 15:00etara. ||

❖ PLENOA

Puntuen artean, mozio 1: Abortoaren legearen erreformari buruzkoa

Plenoa izango da gaur 19:00etatik aurrera, udaletxe-ko Pleno Aretoan (2. pisua). Zortzi puntu izango dituzte aztergai eta horien artean, Abortoaren legearen erreformari buruzko mozioa. Udal Euskaltegiko zuzendaria aldatzeaz ere ariko dira. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

Asanblada, gaur

Gaszte Asanbladak bilera egingo du gaur. 18:30, gaztetxean. ||

IPUI ORDUA GAUR - APAXI IPUIN KONTALARIA:

«Ipui kontalaria eta pailazo emanaldiaren artean dago Apaxi»

Apaxik ipuiak kontatzen ditu, baina magia ere egiten du, panpinak erakusten ditu... Gaur Udal Liburutegian izango da, 17:00etatik aurrera, eta berak emango die hasiera hileroko ipuin kontaketei.

DENBORA gutxi daramaki ipuiak kontatzen, baina dagoeneko saio dexente eginda dago, eta umeekin konexioa segituan lortu du. Apaxi ez da beste ipui kontalariak bezalakoa, eta berak ere hala dio: «ipui kontalaria eta pailazo emanaldiaren artean dago Apaxi; ipuiak kontatzen ditu, baina magia ere egiten du, eta panpinak ditu...».

Udal Liburutegian gaur hasiko dira hain zuzen hileroko ipui kontaketa, eta hasiera Apaxik emango die, 17:00etatik aurrera. Beti bezala, 3-7 urte bitarteko umeentzat izango da.

Mendira dijoan gazte bat...

Apaxi mendira abiatzen da, eta bidean hainbat lagun bilatuko ditu. Tartean ipuiak kontatuko dizkie, eta hainbat gertaera magiko pasako dira... funtsean, kontakizuna berdintsua izaten da, baina ipuiak aldatu egiten dira batetik bestera.

Apaxik uste du helburua funtsean umeek ondo pasatzea dela, eta bigarren plano batean uzten ditu ipuiekin bat edo beste erakustea. «Askok diote ipuiekin erakutsi egin behar dela, baina ez nago erabat ados. Berez umeak ondo pasatzea datoz, eta hori da nere helburua; nahiz heziketa pintzeladaren bat sartzea ere ondo dagoen».

Konexioaren bila...

Umeekin konexioa lortzen du Apaxik, eta klabea horixe dela dio berak ere, baina hori ez omen da magia kontua: «hori



Apaxi kontalaria Portun. Denbora gutxian Hernanin zazpi saio egin ditu Apaxik.

ez da magia, umeekin konexioa berezkoa da, eta nik lortzen dut. Haurrak gustora egoten dira, eta esango nuke gurusoak ere baietz; gurasoentzat ere beti izaten det prest tiroren bat».

Lezoko Brinko pailazoak

animatuta hasi zen Apaxi ipui kontatzen, proba gisan. «Bi urteko proba egin nahi dut. Ingurukoek ikaragarri lagun du didate, aurreneko kolpea ondo atera zait, eta orain saio bila hasi behar dut». Informazioa: www.apaxikontalari.com. ||

IPUI KONTAKETAK

Urtarrilak 28	Apaxi
Otsailak 25	Lur Korta
Martxoak 25	Lupe Lekuona
Maiatzak 27	Maite Franko
Urriak 28	Maite Franko
Azaroak 25	Lur Korta



RUFINO

SAGARDO NATURALA

Otsailaren 4tik Martxoaren 29ra

Asteartetik larunbatetara gauz

☎ 943 55 27 39

JAVIER ANSORENA - Akarregi Baserría - HERNANI -

TILIN * TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK
KONSULTAK

☎ 943 55 56 94

Txirrita, 10 - HERNANI

ARALAR

TABERNA



GIRO EDERRA

ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

TELEFONAK

- **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
- **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
- **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
- **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA

GAUR Eguerdiko hego puntuak argi pixka bat emango dio egunari; gainerakoan, ipar-mendebala zakar, euria, trumoi eta elurra ere gertu. Min.5° / Max.11°

BIHAR Hotza eta euria nagusi bihar ere. Trumoi-ekaitza ere izango da, eta ipar-mendebala zakar, boladaka. Euria erruz, eta elurra 700 metro ingurura. Min.5° / Max.9°

(euskalet)

❖ HERNANI'N MUSIK

Iparaldetik zabaldu zen euskal rocka.

Euskal Herriko rock musikaren historia aztertu zuen Ritxi Aizpuruk joan den asteazkenean, Sandiusterrin. Rocka Euskal Herrian, Iparaldetik zabaldu zela azaldu zuen eta zeregin horretan, Anje Duhalde, Mixel Ducau eta Niko Etxartek egin zuten lana azpimarratu. Bilakaera ere azaldu zuen eta azalpenetatik harago, Gatibu taldeko Alex Sardui eta Mikel Caballerok emanaldi akustikoa eskaini zuten. ||



❖ LAU HAIZETARA GOGOAN


Memoria historikoa lantzeko, pauso bat gehiago.

Lau Haizetara Gogoan plataformak hitzaldia antolatu zuen asteazkenean, memoria historikoa lantzeko asmoz. Gotzon Garmendiak Eusko Jaurlaritzako bake eta elkarbizitza plana izan zuen hizketagari eta aurretik, Txuso Gomezek hitz egin zuen hainbat gertaera historikotaz: *Hernani y el alzamiento militar fascista*. ||

❖ AKORDEDI ZIKLOA

Stravinskyren tangoa, Jimenezen eskutik.

Maila haundiko hiru soinu-joleren bisita izan genuen Hernanin, larunbat iluntzean. Marta Cubas Hondal, Maria Zubimendi eta Narciso Jimenezena, hain zuzen. Gazteak izan arren, hainbat sari esanguratsu irabaziak dira dagoeneko eta ondo irabaziak dituztela argi utzi zuten. Angelisen *Soliloquio*, Schimmelen *Fables* edota Stravinskyren *Tango* jo zituzten, Milagrosan. ||



❖ GOIZUETA EZAGUTZEN

Megalitoak ikusiz, zortzigarren mendi buelta.

Goizueta ezagutzen ekimenaren barruan, zortzigarren mendi irteera egin zuten igandean, Umore Ona elkarteak antolatuta. Aztarna megalitikoetan barrena ibili ziren, 18 lagun. Eguraldi ederrarekin mendiaz gozatu eta gero, Umore Ona elkartearen bazkari batekin agurtu zuten eguna. ||

❖ TURISMO ETA KULTURA BATZORDEA

Diru laguntzak eta bi hitzarmen, aztergai

Turismo eta Kultura Batzordea izango da gaur 18:00etan, udal-tereko bilera gela 1ean (4. pisua). 10 gairi buruz ariko dira. Horien artean: kultur jardueretako eta auzo elkarteetako diru laguntzen justifikazioak, diru laguntzak eskatzeko oinarriak, inauterietako egitaraua eta aurrekontua onartzea, kartel lehiaketaren irabazlearen berri ematea... Horrez gain, bi hitzarmen ere izango dituzte hizketagai: produktu turistikoaren garapenerako Udalaren eta Behemendiren arteko hitzarmena eta Udalaren eta Euskadiko Feriariari Autonomoen elkargoaren arteko hitzarmena. ||

❖ TXANTXANGORRI - MUS TXAPELKETA

Sei partida jokatu dira gaur

Txantxangorriko Mus Txapelketa hasi da eta gaur honako sei partidak jokatu dira: Arkaitz-Ander/Emilio-Ibon; Iñaki-Marcos/Bixente-Manolo; Pablo-XX/Esteban-Carlos; Alber-Pedro/Javier-Peio; Ceci-Bitxo/Pineda-Xixo; eta Monroy-Txato/Patxi-Jose Leon. ||

❖ GIBELALDE - LIZEAGA

Bazkide egiteko aukera izango da gaur

Gibelalde Lizeagako auzo elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du eta gaur ere izango da aukera bazkide egiteko, 19:30etatik 20:30etara (Larramendi kalea, 11). ||


❖ STOP KALERATZEAK

Ordiziako kontzentrazioa joateko deia

Hernaniko Stop Kaleratzeak taldeak deialdia egin du bihar Ordiziara joateko. Kontzentrazioa egingo dute 11:30etan, Kutxabanken aurrean, Marielari babesa erakusteko. Hernaniko taldea trenean joango da. 10:44etako trena hartuko dute Apeaderoan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



JOSE ANTONIO RODRIGUEZ ALCELAY


Atzo hil zen, 70 urte zituela

- G. B. -

Emaztea: Angeles Martinez; seme-alabak: Jose Antonio, Angel eta Marilu, Yolanda eta Imanol, Nerea eta Agustin, Aitor eta Eva; bilobak: Xabier, Hodei, Eneko, Irupe, Nora eta Irati; anai-arrebak: Angelines (†) eta Carlos (†), Julian eta Begoña, Maria Jose eta Jose Juan; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 28an

Helbidea: Oarso, 6
Oharra: Gorputz beila ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da, gaur gaueko 21:00ak arte.





FRANCISCO ALTUZARRA DIEZ

JAUNA

Atzo hil zen, 67 urte zituela.

- G. B. -

Besarkada goxo bat.

Zure arreba: Allende; ilobak: Luis eta Mercedes eta biloba: Nora.

Hernanin, 2014ko urtarrilaren 28an

Oharra: Hiletak eta gorputz laguntza bere familia artean egingo dira.



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**